

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO ZAINKETETARAKO GOMENDIOAK PRESTATZEA OSAKIDETZAN

1

Eskuliburu metodologikoa

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO ZAINKETETARAKO GOMENDIOAK PRESTATZEA OSAKIDETZAN.
ESKULIBURU METODOLOGIKOA

Ebidentzian Oinarritutako Zainketetarako Gomendioak Osakidetzan lantaldea.

M^a Ángeles Cidoncha Moreno: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

José Asua Batarrita: Osteba. Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

M^a Luz Peña González: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

Elena Mayordomo Arnaiz: Arabako Osasun Mentaleko Sarea

Begoña Garitano Tellería. Araba Unibertsitate Ospitalea

M^a Rosario García Rodríguez: Donostialdea ESI

Juan Antonio Martínez: Donostialdea ESI

Camino del Río Pisabarro: Donostialdea ESI

Lucía Gárate Echenique: Donostialdea ESI

Laura Balagué Gea: Donostialdea ESI

Cristina Quesada Ramos: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

Rosa M^a Blanco Zapata: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

M^a Victoria García Domínguez: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

Elena López García: Bilbao-Basurto ESI

Inmaculada Valdivia Chacón: Bilbao-Basurto ESI

Edizioa: Osakidetza

Lege-gordailua: SS-713-2015

**EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO
ZAINKETETARAKO GOMENDIOAK
PRESTATZEA OSAKIDETZAN**

ESKULIBURU METODOLOGIKOA

EGILEAK

Ebidentzian Oinarritutako Zainketetarako Gomendioak Osakidetzan lantaldea.

M^a Ángeles Cidoncha Moreno: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

José Asua Batarrita: Osteba. Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

M^a Luz Peña González: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

Elena Mayordomo Arnaiz: Arabako Osasun Mentaleko Sarea

Begoña Garitano Tellería. Araba Unibertsitate Ospitalea

M^a Rosario García Rodríguez: Donostialdea ESI

Juan Antonio Martínez: Donostialdea ESI

Camino del Río Pisabarro: Donostialdea ESI

Lucía Gárate Echenique: Donostialdea ESI

Laura Balagué Gea: Donostialdea ESI

Cristina Quesada Ramos: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

Rosa M^a Blanco Zapata: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

M^a Victoria García Domínguez: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESI

Elena López García: Bilbao-Basurto ESI

Inmaculada Valdivia Chacón: Bilbao-Basurto ESI

AURKEZPENA

Eskuliburu metodologiko hau laguntza-tresna da Ebidentzian Oinarritutako Zainketetarako Gomendioak prestatzeko (EOZG).

Praktika klinikoan kalitatea hobetzeko eta aldakortasuna murrizteko, tresna egokiak jarri behar dira profesionalen eskura, erabaki klinikoak hartzea errazten dutenak.

Osakidetzak, eta bereziki Erizaintzako Zuzendariordetzak, badakite egungo ikerkuntza-emaitzarik onenak txertatu behar direla profesionalen praktika klinikoan, eta horren ondorioz, ezagutzarik onenak eguneroko jardueretara bideratzen laguntzen duen proiektu baten alde egin dute. Hori dela eta, ebidentzian oinarritutako zainketetarako gomendioak prestatzeko apustua egin da.

Gomendio horien xedea profesionalei eguneroko praktikan laguntzea da.

Proiektuari koherentzia eta jarraitutasuna emateko, garrantzitsua da metodologia zorrotza eta gardena zehaztea EOZGak Osakidetzan egiteko. Gomendio horiek alor horretan eskarmentua duten profesionalen berrikusketa-lanaren, azterketaren eta adostasunaren emaitza izan behar dute.

Eskuliburu hau laneko, adostasun-bilaketako eta koordinazioko ahalegin kolektiboaren emaitza da. Hemendik aurrera, erreferentzia-metodologia bat dugu EOZGak prestatzeko Osakidetzan, ikuspuntu zientifikotik erabilgarrien eta zorrotzen suertatu diren kontzeptu- eta operazio-elementuak txertatzen dituen.

Zalantzarik gabe, beharrezko urratsa da praktika klinikoa hobetzeko estrategian. Ibilbide luzeko estrategia da, eta espero da profesional guztientzako erreferentzia izatea.

Ana Chueca

Aurkibidea

1. Sarrera
2. EOZGak prestatzea
- a) Izenburua, data
- b) EOZGak prestatu dituen taldearen osaera eta funtzionamendua
- c) EOZGak prestatzeko beharra justifikatzea eta arazoaren aurrekariak
- d) Gomendioen xedea eta irismena (galdera klinikoak adieraztea)
- e) Metodologia:
 - a. Ebidentzia zientifikoa bilatzea eta hautatzea.....
 - b. Ebidentzia zientifikoa ebaluatzea.....
 - c. Lehentasunak ezartzea eta ebidentzia garrantzitsua laburtzea
- f) Kanpoko berrikusketa
- g) Gomendioak adieraztea
- h) Adierazleak proposatzea
3. EOZGen edizioa.....
4. Eranskinak.....
5. Bibliografia

1. SARRERA

Ebidentzian Oinarritutako Zainketetarako Gomendioak (EOZG) osasun-gai jakin bati buruz modu sistematikoan garatutako gomendio-multzoa dira, profesionalei pazienteak ezagutza zientifikorik fidagarrienarekin eta eguneratuenarekin artatzen laguntzeko; orobat, sendotu egiten dute arlo horretan dagoen ezagutzarik onena eta praktika horrek gertatu behar duen testuingurua kontuan hartzen dituen erabaki-hartzea.

Ebidentzian oinarritutako gomendioak aplikatzeak EOZGak kalitatezkoak izateko beharra dakar, eta horrexegatik prestatu behar dira metodologia zorrotzari jarraituz. Eskuliburu metodologiko honen helburua EOZGak Osakidetzan prestatzeko metodologia bat zehaztea da, EOZGak Osakidetzan egiteko prozesua sistematizatu, homogeneizatu eta adostu egiten duena, eskuliburu honi jarraitzen dioten dokumentuak, eta beraz, praktikarako ezartzen diren gomendioak kalitatezkoak direla bermatzeko, eskura dagoen ezagutzarik onena oinarri hartuta eta esplizitua izan behar duen metodologia zientifiko, zorrotz eta kontrastatua erabiliz.

Ildo horretatik, alderdi metodologikoetan eta klinikoetan eskarmentua duten Osakidetzako profesional-talde batek garatu du dokumentu hau modu adostuan, eta Osakidetzan EOZGak prestatzen dituzten taldeak dira hartzaileak, nagusiki.

EOZGak prestatzeko metodologiak ezartzen du honako hau egin beharra dagoela:

- Argi zehaztea berrikusi beharreko alderdia, aplikazio-eremua, eta gomendioak zuzentzen zaizkion biztanleria
- Irizpide esplizituak eta sistematikoak ezartzea, hautatutako gaiari eta arloari buruz eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoa bilatzeko, hautatzeko eta ebaluatzeko
- Gomendioak adieraztea ebidentzia zientifikoaren mailaren arabera; hautatzeko, gainera, beste alderdi batzuk hartuko dira kontuan, esaterako, testuingurua edo gomendio hori praktikan aplikatzeko aukera
- Gomendioak apurka aurkeztea, eta argi bereiztea kalitatezko ebidentzia zientifikoan oinarrituta daudenak eta adituen adostasunaren bidez adierazitakoak

Eskuliburuak ematen dituen tresnak erabilgarritzat jo dira profesionalen beharrei erantzuteko gomendioen prestatze-prozesuaren etapa guztietan.

2. EOZGAK PRESTATZEA

Gomendio hauek prestatzeko, zorroztasuna eta pragmatismoa bateratzen saiatu beharra dago. Gaur egun, badaude ebidentzian oinarritutako zainketetarako gomendioak prestatzen lagun dezaketen praktika klinikoko gidak; hori dela eta, Fisterra taldearen (2013) eta osasun-zientzietako Aragoiko institutuaren dokumentuko (ebidentzian oinarritutako erizaintzako lantaldea, 2009) gomendioei jarraitu diegu berrikusketa sistematikoak eta protokoloak egiteko, baita PKG bat prestatzeko OSN Osasun Sistema Nazionalaren eskuliburu metodologikoari ere.

Prestatze-lanean, bi fase ezarri dira. Lehen fasean, sarbide baskularra zaintzeko eta ebidentzian oinarritutako gomendioak bilatu eta hautatu dira, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan aplikatu daitezkeenak. Ondoren, bigarren fasean, klinikoak aktiboki eta nabarmen inplikatur, gomendioak hautatu eta tokiko praktikara egokitu egiten dira, bertan dagoen edo osasun-arazo jakin bat izateko arriskua duen pazienteak artatuko den erari buruzko informazioa aintzat hartuta emateko moduan, testuinguruari garrantzia emanda.

Metodologia honekin bat garatzen diren EOZGek honako hauek azaltzen dituen informazioa bilduko dute:

- a) Izenburua, data
- b) EOZGak prestatu dituen taldearen osaera eta funtzionamendua
- c) EOZGak prestatzeko beharra justifikatzea eta arazoaren aurrekariak
- d) Gomendioen xedea eta irismena (galdera klinikoak adieraztea)
- e) Metodologia:
 - a. Ebidentzia zientifikoa bilatzea eta hautatzea
 - b. Ebidentzia zientifikoa ebaluatzea
 - c. Lehentasunak ezartzea eta ebidentzia garrantzitsua laburtzea
- f) Kanpoko berrikusketa
- g) Gomendioak adieraztea
- h) Adierazleak proposatzea

a) Izenburua eta data

EOZGek data adierazi behar dute, prestatutako gomendioak egungoak ote diren jakiteko.

b) EOZGak prestatu dituen taldearen osaera eta funtzionamendua

Irismena eta xedeak zehazteko fasearen ostean, gomendioak prestatuko dituen taldearen osaerari ekin behar zaio, eta berau giltzarria da proiektua arrakastatsua izateko. Taldearen osaera garrantzitsua da honako hau guztia bermatzeko:

- Lotuta dauden arlo profesional guztiek ordezkaririk izatea.
- Zientzia-mailan garrantzitsua den informazio guztia egoki topatzea eta ebaluatzea.
- Arazo praktikoak identifikatzea eta jorratzea.
- Gomendioen sinesgarritasuna eta harrera ona areagotzea erabiltzaileen artean.
- EOZGak erabiltzeko eragozpenak minimizatzea.

Gomendioak prestatuko dituzten taldeetako kideek gaia ezagutu behar dute, eta gainera, literatura zientifikoa bilatzeari, kritikoki ebaluatzeari eta informazioa laburtzeari buruzko ezagutzak eta gaitasunak izan behar dituzte.

Gomendatzekoa da **taldeak koordinatzaile bat izatea, adituak metodologian eta klinikan, eta bideratzaileak. Prestatuko dituen taldeko kide guztiak garatu beharreko EOZGen egile dira.**

Gomendioak prestatzen dituen taldearen lanak batera eta eraginkortasunez jardutea dakar nahitaez.

Proiektu bakoitzean, taldekide bakoitzaren zereginak argi eta garbi mugatu behar dira, ezagutzekin, gaitasunekin eta eskura dauden baliabideekin bat etorritik.

Proposamena alda daiteke, eta aldaketa horiek arrakastatsu suerta daitezke EOZGak garatzeko esperientzietan.

EOZGak egiteko prozesuan, badira prestatzen dituen taldekoak ez diren beste figura batzuk, baina garatze-bidean zeregin garrantzitsua dutenak:

- **Kolaboratzaileak:**EOZGak prestatzeko prozesuaren zati batean parte har dezaketen profesionalak. Adibidez, zenbait alderdi oso zehatzetan; esaterako, eranskin bat, etab.
- **Kanpoko berrikuslea:** kolaboratzaile adituek ez bezala, azken fasean soilik hartzen du parte,

EOZGen behin-behineko zirriborroa berrikusteko.

EOZGek osasun-profesional ugariaren lanean eragina duen gomendio-multzoa proposatzen dute. Gomendioen hartzaileek jakin behar dute egile bakoitzak zein harreman duen osasun-industriare-

kin (farmazia edo beste osasun-teknologia batzuk), garatze-bidean independentzia eta gardentasuna bermatzen saiatze aldera.

Interes-gatazka izan daitezkeen jarduerak sortzen dira bigarren mailako interes batek (finantzaonura, izen ona edota promozio pertsonala edo profesionala) eragina izan dezakeenean lehen mailako interes bati buruzko (esaterako, pazienteen segurtasuna edo ikerkuntza-lan baten baliozkotasuna) iritzi profesionalean.

Interes-gatazka izan daitekeena sortu edo ez, erreferentzia egingo zaio, eta horretarako, adierazpen sinatua atxikiko da eranskin gisa.

Interes-gatazkei buruzko adierazpen-eredua atxiki da ERANSKIN gisa.

c) EOZGak prestatzeko beharra justifikatzea eta arazoaren aurrekariak

Justifikazioak adierazi egin behar ditu gomendioak prestatzeko beharra justifikatzen duten zergatiak eta arrazoiak. Informazioa eman behar du atzemandako arazoaren egungo egoerari buruz: Zein da arazoa? Non gertatzen da? Nori gertatzen zaio? Nola gertatzen da? Edo zein maiztasunarekin gertatzen da?

Erabilgarria da informazio kuantifikatua ematea gaixotasunaren maiztasunari (intzidentzia edota prebalentzia), zerbitzuak edo asistentzia erabiltzeari, eta ohiko edota eskura dauden arreta-formei buruz.

Honatx garatu beharreko atalak:

- Jorratzen den gaian eragina duten aurrekariak
- Proposatutako EOZGak gaur egungo praktika klinikoan prestatzeko beharraren justifikazioa; bertan, gomendioak prestatzea aholkatzen duten aldakortasun-, ziurgabetasun- edo egokitasun-arrazoiak adieraziko dira.
- Hartzaile diren herritarrak: zehaztu egingo dira gomendioetan kontuan hartuko diren paziente-taldeak, baita aintzat izango ez dituzten paziente- edo herritar-motak ere. Era berean, sartuko ez diren alderdi klinikoak mugatuko dira.

d) Gomendioen xedea eta irismena (galdera klinikoak adieraztea)

Atal honetan, xede orokorrak eta zehatzak deskribatu behar dira.

Xedeak zehazteko etapan, ziurtatu egin behar da erantzun zehatzak ematen zaizkiola planteatutako irismenari. Zehaztutako arazo kliniko guztiak etapa honetan islatu behar dira. Galdera klinikoen bidez egin daiteke hori. Galdera klinikoek argiak, zehatzak eta espezifikokoak izan behar dute, ebidentzia zientifikoa bilatzea eta berrikustea errazteko, eta beraz, oso egokiak ez diren gomendioak ekiditeko.

Garrantzitsua da galdera klinikoen kopurua heltzeko modukoa izatea eta zainketarekin lotutako alderdi guztiak jorratzea.

Galdera klinikorik egokienak zehaztu behar dira, eta horretarako, bilaketa bibliografikoa egin behar izaten da maiz aldez aurretik, galderak berradierazteko eta galdera berriak sortzeko aukera ematen duena.

Garrantzitsua da galdera kliniko guztien zerrenda eskuratu ahal izatea prozesuaren amaieran, EOZGen xede den gaiaren inguruko arreta egituratu den ataletan sailkatuta.

Galdera kliniko generiko batetik PICO metodoaren bidez modu espezifikoa adierazitako batera igarotzeko, osagai hauek hartu behar dira kontuan:

- **Pazienteak:** adin-taldeak, gaixotasunaren estadia, komorbilitatea, etab.
- **Interbentzioa:** teknika, gailua, farmakoa, prozedura edo jarduteko modua, faktore pronostikoa, agente etiologikoa, proba diagnostikoa, etab.
- **Konparazioa:** aztergai den interbentzioaren alternatiba da, adibidez: ohiko tratamendua edo plazeboa, arrisku-faktorik ez egotea, agente etiologikorik ez egotea, proba diagnostiko baten urre-patroia edo erreferentziakoa, etab.
- **Emaitzak (outcomes):** klinikoki garrantzitsuak diren emaitza-aldagaiak, eraginkortasunari, pronostikoari edo etiologiari buruzko azterlanen kasuan, eta errendimenduaren edo baliozkotasunaren estimatzaileak.


e) Metodologia

a. Ebidentzia zientifikoa bilatzea eta hautatzea

EOZGen kasuan, bilaketa-estrategia esplizitu jakin bati jarraitu behar zaio bibliografia identifikatzeko. Bibliografia behin betiko hautatzeko, garrantzitsua da gomendioak prestatzen dituen taldeak zehatz-mehatz definitzea dokumentuak sartu edo baztertzeko irizpideak.

Irizpide horien artean, funtsezkoa da klinikoentzat eta pazienteentzat garrantzitsuak diren emaitza-aldagaiei erreparatzea, eta iturriak eta dokumentu- edo azterlan-motarik egokienak hautatzea, erantzun behar zaion galderaren arabera.

Berrikusketa bibliografikoa, bigarren mailako datu-baseei ematen zaie lehentasuna, Haynes-en proposamenarekin bat etorritik (1. ird.).



Bilaketa-estrategia planifikatzean, honako premisa hauek hartzen dira abiapuntutzat:

- Bilaketa galdera kliniko egituratuetatik abiatuta egiten da.
- Berrikusketak bibliografikoak, EOZGak prestatzeko testuinguruan, gai beraren inguruan dauden praktika klinikoko gidak (PKG) bilatuz hasten dira sarri. Laburpenak datu-baseetan bila daitezke, adibidez, UptoDate edo Dynamed-en.
- Berrikusketak sistematikoak (BS) eta banakako azterlanak honako datu-base hauek erabiliz bilatu behar dira, besteak beste: Cochrane Plus liburutegia (CochraneLibrary), DARE, Medline, EMBASE edo CINAHL. Gainera, datu-base zehatzagoak ere erabili daitezke, gaiaren arabera. Informazio bibliografikoari buruzko base gehiago ikus daitezke eranskinean.

Bilaketa- eta hautaketa-elementuak argi zehaztu ondoren, datu-baseak aukeratu behar dira, bilatu nahi den argitalpen-motaren eta galdera kliniko bakoitzaren xede den gaiaren arabera.

Horrez landa, ongi zehaztu behar dira hautatutako dokumentu-iturriak sartu eta baztertzeko irizpideak. Irizpide horiek lortu nahi den xedea eta irismena oinarri hartuta gauzatuko dira, eta honako alderdi hauei ere erreparatuta:

- 1) Hautatutako dokumentu zientifikoaren mota (praktika klinikoko gidak, berrikusketak sistematikoak, jatorrizko azterlanak).

- 2) Dokumentuen kalitate-irizpideak: dokumentu-motaren eta taldearen adostasunaren arabera, kalitate metodologikoko gutxieneko irizpideak ezarriko dira, ebaluazio-parrila estandarizatuak (AGREE, PRISMA, CONSORT, STROBE...) oinarri hartuta sartuko diren dokumentuei exiji dakizkiekeenak.
- 3) Dokumentuen eguneratze-maila: EOZGen helburuaren inguruan eskura dagoen ezagutzaren arabera, eta praktika klinikoak, gutxienez, 5 urtean behin berrikusi behar direlako gomendioa aintzat hartuta, dokumentuak sartu/baztertzeko denborazko irizpide bat ezarri ahal izango da.
- 4) Sartzeko hautagai den dokumentua garatu zen testuinguru geografikoa-kulturala-soziala. Sartzan diren dokumentuek ezagutza garrantzitsua gehitu behar diote Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren testuinguruari.

b. Ebidentzia zientifikoa ebaluatzea

EOZGak prestatuko dituen lantaldeak ebaluatu egin beharko du kontsultatutako iturrien arabera topatutako ebidentzia.

Adibidez, PKGen kalitatea AGREE-II tresnaren bitartez ebalua daiteke: <http://portal.guiasalud.es/web/guest/evaluacion-gpc>.

Oinarritzko dokumentuak beste azterlan-mota batekoak badira, ebaluazio kritikoa egingo da dokumentu zientifikoak ebaluatzeko nazioarteko gomendioei jarraikiz:

- PRISMA (berrikusketa sistematikoak ebaluatzea)
- CONSORT (ausazko saio klinikoak ebaluatzea)
- STROBE (behaketan oinarritutako azterlanak)
- INAHTA (ebaluazio-txostenak)

Ebidentzia zientifikoaren kalitatearen ebaluazioa amaitutakoan, hurrengo urratsa datu garrantzitsuak ateratzean datza.

c) Lehentasunak ezartzea eta ebidentzia garrantzitsua laburtzea

Gomendioen xedea ez da gidetan, berrikusketetan edo beste dokumentu batzuetan jasotako gomendioen transkripzio hutsa izatea; aitzitik, tresna erabilgarria izatea du helburu, gidatzat eta ebaluatu beharreko gaiari buruzko ebidentziara gerturatzeko bitartekotzat balio duena. Gomendio-kopurua oso handia bada, erabilgarria izan daiteke gure testuinguruan bereziki garrantzitsuak direnak kontuan hartzea, eta halakoetan, lehenesteko prozedura adierazi behar da.

Erabaki horiek hartzen laguntzeko, identifikatu egin behar dira arretan eta pazienteen osasun-emaizetan ziurrenik inpakturik handiena izango duten gomendioak. Zenbait irizpide erabil daitezke: ebidentzia-maila, abian jartzeko egingarritasuna, aldaketaren handitasuna, inpaktua

pazientearengan, etab. Erabiliko diren irizpideak adostu behar dira, baita nondik norakoak azaldu ere.

EOZGak aplikatuko diren testuingururako gomendiorik garrantzitsuenak lehenetsiz hautatu ondoren, gomendioak laburtzeko prozesuari helduko zaio. Prozesu horren helburua da proposatutako xedearen inguruko gomendioak irakurtzen, ulertzen eta abiarazten laguntzea.

Prozesuan laguntzeko gomendatutako irakurgaiak:

<http://be.uab.es/vm/sp/old/docs/metodologia/evidencia.pdf>

<http://www.guiasalud.es/emanuales/elaboracion/documentos/Manual%20metodologico%20-%20Elaboracion%20GPC%20en%20el%20SNS.pdf>

<http://www.svpcd.org/mbe/niveles-gradus.pdf>

http://www.index-f.com/evidentia/clasif_evidencias.php

f) Kanpoko berrikusketa

Gomendioak prestatu dituen taldeak EOZGen zirriborro aurreratua duenean, garrantzitsua da kanpoko berrikusketa independenteko faseari ekitea. Etapa hori funtsezkoa da dokumentua ñabartzeko eta aberasteko, baita gomendioen zehaztasuna ziurtatzeko ere. Prozesu horrek gidaren eta gomendioen kanpoko baliozkotasuna areagotzen du, eta azken produktua bideratuta dagoen inguruarekiko errealistagoa izatea errazten du.

Kanpoko berrikusketak diziplinartekoa izan behar du, eta intereseko gaiaren arabera, lotuta dauden arloetako profesionalek hartu behar lukete parte.

Berrikusleek justifikatu egin beharko dituzte proposatutako testuari eginiko iruzkinak edo zuzenketak, eta ez dituzte iritzi pertsonaletan oinarrituko, egiaztatutako ebidentzietan baino.

Iruzkinak txertatzeko, onuragarria da taldeak modu ordenatuan lan egitea, jasotako iruzkinak tabulatzea eta ordenatzea, kontuan hartuko direnak eta baztertuko direnak zehaztea, eta zergatia adieraztea. Berrikusle guztien iruzkinak jaso ostean, garrantzitsua da, orobat, atalka edo sailka ordenatzea eta taldekideen artean hedatzea, balora ditzaten.

g) Gomendioak adieraztea

Gomendioak aplikazio-eremuko hizkuntza ofizialetan adieraziko dira. Gaika antolatuko dira, eta prozedura edo teknika jakin baten ingurukoak badira, denborazko sekuentzia bati jarraituko diote. Gomendio bakoitzari ebidentzia-maila esleituko zaio, hain zuzen, berau atera zen jatorrizko iturriko gomendioarekin batera agertzen zena, eta gomendioa topa daitekeen erreferentzia ere aipatuko da. Horrela jokaturik, klinikoei jatorrizko iturria eskuratu ahal izango dute, eta jatorrizko iturrian erabilitako metodologia oinarritzat hartuta erabakiko dute zein konfiantza-maila ematen dioten.

h) Adierazleak proposatzea

Adierazle bat neurri kuantitatibo bat da, jardueren kalitatea kontrolatu eta baloratzeko gidatzat erabil daitekeena, hau da, gomendio bat eta horren betetze-maila neurtu edo ebaluatzen den modu zehatza (zenbakiz, eskuarki), baina kontuan hartuta gomendio bakoitzak adierazle bat baino gehiago izan ditzakeela.

Adierazleak modu askotara sailka daitezke, baina sailkapen ezagunenera jotzen bada (Donabedian-ena), honako talde hauek sor daitezke: egitura, prozesua eta emaitza.

Nahiz eta adierazle amaigabeak dauden gomendio bakoitza ebaluatzeko, komeni da adierazle-talde bat mugatzea, denboran zehar ebaluatzeko eta beste zentro batzuekin alderatzeko aukera ematen duena.

EOZGen dokumentu bakoitza prestatzen duten taldeek adierazleak proposatu ahal izango dituzte erabilera neurtzeko. Horretarako, ebidentzia zientifikoan oinarritutako interbentzioak eta kostua-eraginkortasuna emaitzarik onena edo antolatze-alderdi giltzarriak hautatuko dira, gomendioak prestatzen dituen taldeak uste badu monitorizatu egin behar direla.

3. EOZGEN EDIZIOA

Ebidentzian oinarritutako gomendioek zenbait bertsio eta formatu izan ditzakete, baina irizpideak eta formatuak bateratzeko, estiloa zaindu behar da guztietan. Hori dela eta, honako hau gomendatzen da:

- Hizkera argia erabili behar da, ulerterraza.
- Gomendioak modu espezifikoa eta ez anbiguoan idatzi behar dira.
- Modu esplizituan nabarmendu behar dira ebidentzia zientifiko txikia eta ziurgabetasuna duten gomendioak.
- Laburtzapenak deskribatu egin behar dira testuan agertzen diren lehen aldian. Zenbaitetan, sigla, laburtzapen edota akronimo ugari badaude, egoki suerta daiteke taula bat osatzea horiekin guztiekin.
- Taulek argiak izan behar dute eta testuan ez dagoen informazioa jaso behar dute.
- Algoritmoek argiak izan behar dute, sinpleak eta ez oso luzeak. Hobe da algoritmo bat baino gehiago egitea, oso konplexua den eta informazio asko ematen duen bat baino.

EOZGen harrera eta erabilera errazteari begira, bertsio laburbildua egitea proposatzen da, bertsio osoaz gain.

4. ERANSKINAK

Aurkezten diren eranskinak zenbaitua egon behar dute eta EOZGen dokumentuan ageri.

Eskuliburu metodologiko honetan, behean adierazitako dokumentuak atxiki dira, EOZGak prestatzeko eredu gisa.

1. eranskina. PKGen kalitatea ebaluatzea. AGREE tresna (bertsio laburtua)

Gida: _____ Ebaluatzailea: _____

| IRISMENA ETA XEDEAK | | | | | | |
|--|-------------|---|---|---|---|---------------------|
| | Erabat ados | 4 | 3 | 2 | 1 | Ez nago batere ados |
| 1. Gidako xede orokorrak zehatz-mehatz deskribatu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 2. Gidak jorratzen dituen alderdi klinikoak zehatz-mehatz deskribatu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 3. Gida aplikatu nahi zaien pazienteak zehatz-mehatz deskribatu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| TARTEAN DAUDENEN PARTE HARTZEA | | | | | | |
| 4. Gida egin duen taldean profesional-talde garrantzitsu guztietako pertsonak daude | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 5. Pazientearen ikuspuntuak eta berak nahiago duena aintzat hartu da | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 6. Gidaren xede-erabiltzaileak argiro definitu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 7. Gida xede-erabiltzaileen artean probatu da | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| ZORROZTASUNA PRESTATZE LANETAN | | | | | | |
| 8. Metodo sistematikoak erabili dira ebidentzia zientifikoa bilatzeko | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 9. Ebidentzia zientifikoa hautatzeko irizpideak argiro deskribatu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 10. Gomendioak adierazteko erabili diren metodoak argiro deskribatu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 11. Gomendioak adieraztean, osasun-onurak, albo-ondorioak eta arriskuak hartu dira aintzat | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 12. Lotura esplizitua dago gomendio bakoitzaren eta oinarri duten ebidentzia zientifikoaren artean | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 13. Gida argitaratu aurretik, zenbait adituz berrikusi dute | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 14. Gida eguneratzeko prozedura bat jaso da | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |

| ARGITASUNA ETA ITXURA | | | | | | |
|--|-------------|--|--|--|--|---------------------|
| 15. Gomendioak zehatzak dira eta ez dira anbiguoak | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 16. Gaixotasuna kudeatzeko aukerak argi aurkeztu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 17. Gomendio giltzarriak erraz identifika daitezke | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 18. Gidak berau aplikatzeko tresnak ditu | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| APLIKAGARRITASUNA | | | | | | |
| 19. Eztabaidatu egin dira gomendioak aplikatzean sor daitezkeen antolatze-eragozpenak | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 20. Gomendioak aplikatzeko sor daitezkeen kostuak aintzat hartu dira | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 21. Gidak irizpide giltzarrien zerrenda jartzen du eskura, monitorizazioaedo ikuskaritza egiteko xedez | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| ARGITARATZE INDEPENDENTZIA | | | | | | |
| 22. Gida erabat independentea da erakunde finantzatzailearekiko | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |
| 23. Interes-gatazkak erregistratu dira dokumentua garatu duten taldekideen artean | Erabat ados | | | | | Ez nago batere ados |

EBALUAZIO GLOBALA

Gida hau gomendatuko zenuke praktikan erabiltzeko?

- Oso gomendagarria.....
- Gomendagarria (baldintzekin edo aldaketekin).....
- Ez da gomendagarria
- Ez dakit

Kontsultatu metodologia hemen: <http://portal.guiasalud.es/web/guest/evaluacion-gpc>

2. eranskina. Interesen adierazpena

“Lantzen ari den edo berrikusteko bidaltzen den proiektuaren edota dokumentuaren izenburua”

Interesen adierazpena

Interes-gatazka izan daitezkeen jarduerak sortzen dira bigarren mailako interes batek (finantza-onura, izen ona edota promozio pertsonala edo profesionala) eragin handiegia izan dezakeenean lehen mailako interes bati buruzko (esaterako, pazienteen segurtasuna edo ikerkuntza-lan baten baliozkotasuna) iritzi profesionalan.

Profesionalek osasun-industriarekin (farmazia, osasun-teknologia, etab.) dituzten harremanetan, finantza-interakzioen sei mota bereiz daitezke.

- Laguntza bileretara eta biltzarretara joateko (izen-ematea, bidaia-bekak, etab.)
- Ordainsariak industriak antolatutako bilera batean hizlari gisa jarduteagatik
- Heziketa-programak edo prestakuntza-jarduerak finantzatzea
- Laguntza eta finantzazioa ikerkuntza-lanetarako
- Lanpostua farmazia-konpainia baten aholkulari gisa
- Akzioduna edo interes ekonomikoak farmazia-konpainia batean

Illo horretatik, bi motakoak izan daitezke txostena prestatzean sor daitezkeen interes-gatazkak:

- Interes pertsonalak: ordainsariak edo onura pertsonalak taldekide batentzat.
- Interes ez pertsonalak: finantzazioa taldekideak zuzendaritza-erantzukizuna duen departamentu edo unitate batentzat, taldekideak berak halakorik jaso gabe. Halakotzat jo daitezke unitate edo departamentu bat sortzeko laguntza ekonomikoak, unitate horietan langileak kontratatuzko finantza-laguntza, edo unitatearen ikerkuntza-lana finantzatzea.

Sor daitezkeen interes-gatazka halakotzat hartuko da, nahiz eta profesionalak uste edo ez harreman horiek eragina dutela bere irizpide zientifikoan.

Jarraian, interes-gatazken adierazpenari buruzko inprimaki bat jaso da, arestian adierazitako alderdiak biltzeko diseinatu dena. Egungo eta **azken hiru urteetako** interes-gatazkak adieraziko dira.

INTERESAK ADIERAZTEKO INPRIMAKIA

- Txostenaren izena:
- Izen-abizenak:
- Lan egiten duzun erakundea:
- Txostenarekin lotzen zaituen erakundea, adib., zientzia-elkarteak, fundazioak, etab. (erantzun aurrekoa eta hau ezberdinak badira):
- Harremanetarako telefono-zenbakia:

Proiektu honetan zeregin honekin hartzen duzu parte:

- 1- Egilea 2- Kolaboratzaile aditua 3- Berrikuslea

Txostena prestatzeko proiektu honetarako gatazken adierazpenari buruz igorritako informazioa irakurri eta ulertu ondoren, honako hau adierazten dut:

A- Interes pertsonalak

EZ BAI Baiezkoa bada, zehaztu:

| | Jarduera | Erakundea | Data |
|--|---|------------------|--------------------|
| <i>Finantzazioa bileretarako eta biltzarretarako, ikastaroetara bertaratzea (izen-emateak, bidaiia-poltsak, ostatua...): ADIBIDEA</i> | <i>IV. biltzarra...</i> | <i>lana</i> | <i>20...-12-06</i> |
| <i>Ordainsariak hizlari gisa (hitzaldiak, ikastaroak...): ADIBIDEA</i> | <i>Hitzaldia. Aldakortasuna medikuntza- praktikan</i> | <i>Industria</i> | <i>2...-04-12</i> |
| Finantzazioa bileretarako eta biltzarretarako, ikastaroetara bertaratzea (izen-emateak, bidaiia-poltsak, ostatua...) | | | |
| Ordainsariak hizlari gisa (hitzaldiak, ikastaroak...) | | | |
| Heziketa-programak edo ikastaroak finantzatzea (langileak kontratatzea, instalazioak alokatzea...) | | | |
| Finantzazioa ikerkuntza-lan batean parte hartzeagatik | | | |
| Aholkularitza-lanak farmazia-konpainia baterako edo beste teknologia batzuetarako | | | |
| Akzioduna edo merkataritza-interesak konpainia batean (patenteak...) | | | |
| Interes ekonomikoak osasunarekin lotutako enpresa pribatu batean (jabea, langilea, akzioduna, kontsulta pribatua...), gidaren egiletza dela-eta garrantzitsuak izan daitezkeenak | | | |
| Ekonomikoak ez diren interes-gatazkak, gidaren egiletza dela-eta garrantzitsuak izan daitezkeenak | | | |

B- Interes ez pertsonalakEZ BAI

| | Jarduera | Erakundea | Data |
|---|----------|-----------|------|
| Finantzazioa edo laguntza ekonomikoak unitate edo zerbitzu bat sortzeko | | | |
| Nabarmentzeko moduko material-kopurua ematea unitateari edo zerbitzuari | | | |
| Langileak kontratatzea edo laguntza ekonomikoak ematea unitatean edo zerbitzuan langileak kontratatzeko | | | |
| Laguntza ekonomikoa ikerkuntza-lan bat finantzatzeko | | | |
| Heziketa-programak edo ikastaroak finantzatzea unitate-rako | | | |

C- Aurreko ataletan aipatu ez diren beste interes-gatazka batzuk (zehaztu)**Izenpetua:**

Tokia eta data:

Izen-abizenak:

3. eranskina. Berrikusleentzako gutuna

XXXXYYYYjn./and.

..... Osasun Arloko koordinatzailea

XX Osasun Zerbitzua

Helbidea

Hiria, 20...(e)ko (hil)aren Na

XXXX jaun/andre agurgarria:

Osakidetzak ebidentzian oinarritutako praktika sustatu nahi du; hori dela eta, ebidentzian oinarritutako zainketetarako gomendioak prestatzen ari da, praktika asistentzialeko zainketa hobea izan dadin. “-----Izenburua-----” txostena talde horietako baten lanaren ondorio da.

Gai horretan aditua zarenez, eskertuko nizuke kanpoko berrikusketara egitea, eta egokitzat jotzen dituzun iruzkinak eta zuzenketak jasotzea. Halaber, aldaketa nabariak proposatzen badituzu, arren eskatzen dizugu horiek justifikatzen dituen bibliografia ere aipatzeko.

Txostena behin-behinekoa eta, oraingoz, isilpekoa denez, erabilera ere ildo horretatik joan dadila, mesedez. Berrikusten eta zuzentzen amaitutakoan, behar den garaian argitaratuko da. Kontrakoa nahi ez baduzu, zure izena kanpoko berrikusle gisa agertuko da behin betiko bertsioan.

Argitaratze-beharrengatik, bidali iruzkinak **20....(e)koMMMarenNNa baino lehen (20 egun, eskuarki)**, mesedez.

Lankidetzara aldeztu aurretik eskertuta, jaso ezazu nire agurrik beroena,

XXX YYYY

4. eranskina. Kanpoko berrikusketari buruzko iruzkinak

KANPOKO BERRIKUSKETARI BURUZKO IRUZKINAK

PROIEKTUA/DOKUMENTUA:

Kanpoko berrikuslea:

| Iruzkina | Onartua / Ez onartua Onartua aldatetekin | Arrazoiak | Azken idazkera |
|----------|---|-----------|----------------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Data:

Teknikaria:

5. eranskina: Informazio bibliografikoko iturriak eskuratzea

CINAHL: Erizaintzako, fisioterapiako, terapia okupazionalako eta beste arlo batzuetako profesionalen beharrei erantzuteko bereziki diseinatu den datu-basea.

Horren bidez eskura daitezke erizaintzari, fisioterapiari eta terapia okupazionalari buruz ingelesez argitaratutako ia aldizkari guztiak, AmericanNurses' Association eta National LeagueforNursing erakundeen argitalpenak, eta osasunarekin lotutako beste 17 diziplinako aldizkariak: <http://www.ebscohost.com/academic/cinahl-plus-with-full-text/>.

CUIDEN: Index fundazioaren datu-base bibliografikoa; gune zientifiko iberoamerikarreko osasun-zainketei buruzko ekoizpen zientifikoa eskura daiteke bertan, hala espezialitate guztietako eduki kliniko-asistentziala eta osasunaren sustapeneko nola ikuspegi metodologiko, historiko, sozial edo kulturalakoa. Aldizkari zientifikoetako artikulua, liburuak, monografiak eta beste dokumentu batzuk biltzen ditu, baita material argitaragabea ere, eta aditu-batzorde batek ebaluatzen ditu edukiak aldeztu aurretik. Edukiaren zati bat eskuratzeko, harpidetu beharra dago: <http://www.doc6.es/index/>

CUIDATGE: Erizaintzako aldizkarien datu-basea, UniversitatRovira i Virgili unibertsitatearena: <http://teledoc.urv.es/cuidatge/>.

ENFISPO: Universidad Complutense de Madrid unibertsitatearen datu-basea. Erizaintzako, podologiako eta fisioterapiako aldizkariak biltzen ditu. Artikulu gehienak gaztelaniaz daude: <http://alfama.sim.ucm.es/isishtm/Enfispo.asp>.

BIBLIOTECA VIRTUAL DE LA SALUD: Biblioteca Virtual en Salud (BVS - osasunaren liburutegi birtuala) baliabidea sortu zen nazioarteko organismo publikoek kalitate bermatutako informazio zientifikoa eskaini nahi zutelako Interneten. BVSren bidez, bost arlo jorra daitezke: informazio zientifikoa, argitalpen elektronikoak, tresna erabilgarriak, informazio-bilatzaila eta beste osagai batzuk. Berau erabiliz, honako hauetara sartzeko aukera dago: datu-baseak, katalogo kolektiboak, argitalpen elektronikoak, bilaketa-tresnak, direktorioak, etab.: <http://bvs.isciii.es/e/bases.php>.

IBECS: (Índice Bibliográfico Español en Ciencias de la Salud - osasun-zientzien inguruko Espainiako aurkibide bibliografikoa) IBECSek Espainian argitaratutako aldizkari zientifiko-sanitarioetako artikuluen erreferentziak jasotzen ditu, eta osasun-zientzietako zenbait arlotako edukiak ere biltzen ditu, besteak beste, medikuntza (osasun publikoa, epidemiologia eta osasun-administrazioa barne), farmazia, albaitaritza, psikologia, odontologia eta erizaintzakoak: <http://ibecs.isciii.es>.

IME: Índice Médico Español (Espainiako medikuntza-aurkibidea). CSICek eginiko datu-basea da. Espainian argitaratutako eta biomedikuntzan espezializatutako aldizkarietako artikuluen erreferentzia bibliografikoak biltzen ditu, 1971tik aurrerakoak: http://bddoc.csic.es:8080/inicioBuscarSimple.html?tabla=docu&bd=IME&estado_formulario=show.

Nursing&AlliedHealthSource: Erizaintzarekin, antzeko diziplinekin, medikuntza alternatiboarekin eta medikuntza osagarriarekin lotutako osasun-informazioa ematen du. Osasun-zentroetako ikerlarien beharrei erantzuteko diseinatu zen, baita erizaintzako beharrei eta erakunde akademikoe-tako antzeko osasun-programen beharrei erantzuteko ere:

http://www.proquest.com/en-US/catalogs/databases/detail/pq_nursingahs.shtml.

British NursingIndex: Erizaintzari eta emagintzari buruzko datu-basea:<http://www.proquest.co.uk/en-UK/catalogs/databases/detail/bni.shtml>.

EMCare: Biomedikuntzari, erizaintzari eta antzeko diziplinei buruzko liburutegia. Nazioarteko iturrietako 2.700 titulu baino gehiagoren 2 milioi erregistro inguru biltzen ditu: <http://www.elsevier.com/bibliographic-databases/emcare>.

Australia–JoannaBriggs Institute (JBI): Erizaintzarekin eta antzeko diziplinekin lotutako berrikusketa sistematikoak jasotzen ditu. Argitalpen batzuk doakoak dira: <http://www.joannabriggs.edu.au>.

RegisteredNurses' Associationof Ontario – NursingBestPracticeGuidelines (RNAO): Erizaintzako gidak: http://www.rnao.org/Page.asp?PageID=1212&SiteNodeID=155&BL_ExpandID=.

Australia – ClinicalPracticeGuidelinesPortal: Praktika klinikoko gidak, Australiako osasun-arretako inguruetan erabiltzeko diseinatuak: <http://www.clinicalguidelines.gov.au>.

Guidelines International Network: Nazioarteko datu-basea, 5.700etik gorako gidak, berrikusketa sistematikoak, eta ebidentzien inguruko txostenak, mundu osoko 39 herrialdetako 90 erakundek aurkeztutakoak. Lasai asko egin daitezke bilaketak Biblioteca de GuíasInternacional (nazioarteko gida-liburutegia) baliabidean: <http://www.gin.net/library/international-guidelines-library> (testu osoa kideentzat soilik). Temas de Salud (osasun-gaiak) bilduman ere nabiga daiteke: <http://www.g-i-n.net/library/health-topics-collection>.

5. BIBLIOGRAFIA

- Grupo de trabajo de Enfermería basada en la Evidencia de Aragón. Guía metodológica para la elaboración de protocolos basados en la evidencia. Gobierno de Aragón. Departamento de Salud y Consumo. Instituto Aragonés de Ciencias de la Salud. 2009
- Grupo de trabajo de Enfermería basada en la Evidencia de Aragón. Estrategia de mejora de la Calidad de los Cuidados: Protocolos de Cuidados Basados en la Evidencia. Gobierno de Aragón. Departamento de Salud y Consumo. Instituto Aragonés de Ciencias de la Salud. 2009
- Louro A, Rotaeche R, Castiñeira C, Viana C, Casariego E. ¿Cómo hacer una revisión clínica con fuentes de MBE? Fistera. 2013. Eskuragarri hemen: <http://www.fistera.com/guias-clinicas/como-hacer-revision-clinica-con-fuentes-mbe/#20388>.
- Grupo de trabajos sobre GPC. Elaboración de Guías de Práctica Clínica en el Sistema Nacional de Salud. Madrid. Plan Nacional para el SNS del MSC. Instituto Aragonés de Ciencias de la Salud-I+CS; 2007. Guías de Práctica Clínica en el SNS: I+CS N° 2006/OI. Eskuragarri hemen <http://www.guiasalud.es/emanuales/elaboracion/index-02.html>.
- Haute Autorité de Santé. Guide Methodologique. Méthode et processus d'adaptation des recommandations pour la pratique clinique existantes. Collège de la Haute Autorité de Santé. 2007.
- The ADAPTE Collaboration 2009. The ADAPTE Process: Resource Toolkit for Guideline Adaptation. 2.0 bertsioa. Available from: <http://www.g-i-n.net>.
- Brouwers MC, Kho ME, Browman GP, Burgers JS, Cluzeau F, Feder G, et al. AGREE II: advancing guideline development, reporting and evaluation in healthcare. CMAJ 2010 Dec 14;182(18):E839-42.